


9 Soles Eguzki

Ciclo de acciones
artísticas / Ekintza
Artistikoren Zikloa

2023



Con el verano regresa el ciclo 9 SOLES al Mirador del Museo de Navarra. Cada miércoles compartimos un atardecer, una copa y una acción artística en vivo. El gran balcón abierto sobre la ciudad se convierte en un espacio de experimentación para artistas de diferentes disciplinas.

Si algo diferencia la práctica artística del resto de trabajos es la libertad en las formas, en los discursos y en los modos de hacer. Así, las artistas se sienten libres para rodearse de compañeras en sus proyectos, con la intención de contrastar ideas, resolver procesos o sencillamente por la propia alegría del compartir. En esta nueva edición de 9 SOLES queremos prestar atención al flujo de energía, pensamiento y emoción provocados por este tipo de colaboración. Es decir, nos gustaría hacer presente la dimensión interrelacional y afectiva que sostiene cada obra. Se trata también de tomar conciencia de la transmisión social que acompaña el hecho artístico, porque una vez que la obra se expone, se dirige hacia otras personas, las atraviesa y al mismo tiempo las reúne.

Por ello, este verano, en el Mirador cultivaremos los lazos amistosos y tomaremos nota de sus buenos efectos, entre artistas y público. No dudéis en acudir bien acompañadas y acompañados.

Uda honetan, berriz ere 9 EGUZKI zikloa izanen da Nafarroako museoko Behatokian. Asteazkenero, ilunabarra, kopa eta zuzeneko ekintza artistikoa partekatuko ditugu. Hiriaren gaineko balkoi handia esperimentatzeko espazio bihurtuko da, zenbait diziplinatako artistentzat. Formen, diskurtsoen eta egiteko moduen askatasunak bereizten du jardun artistikoa gainerako lanetatik. Horrela artistek libreki aukeratzen dituzte proiektuetarako lankideak, ideiak kontrastatu ahal izateko, prozesuak ebazteko edo, besterik gabe, partekatzeak dakarren poza sentitzeko. Aurtengo 9 EGUZKI ekitaldian arreta eman nahi diogu lankidetza-klase horrek sortzen duen fluxuari, hau da, energia, pentsamendu eta emozioen mugimenduari. Beraz, obra bakoitzaren oinarrian dauden harremanak eta lotura afektiboak erakutsi nahi ditugu. Gertakizun artistikoaren gizarte-transmisioaz ohartzea da kontua; izan ere, behin obra erakutsita, beste pertsona batzuegana iristen da eta haiek zeharkatzen ditu, bai eta elkartu ere, aldi berean. Horregatik, uda honetan, adiskidetasunezko harremanak landuko ditugu Behatokian, eta ikusiko dugu zer ondorio bikain sortzen diren artisten eta ikusleen artean. Etor zaitezte, eta ekarri konpainia ederra, nahi baduzue.



Amaya Suberviola + Sara Ezquerro

19 JUL / UZT. / 20.00

INTERVENCIÓN EN LA CRISTALERA / BEIRATEKO ESKU-HARTZEA

Amaya Suberviola construye sus cuadros por capas, llevando a la pintura nuestro modo de relacionarnos con la realidad a través de la multipantalla. Así, va superponiendo gestos hasta que la obra logra su propia autonomía en el terreno de la abstracción. En su intervención en el Mirador, que ha titulado **Módulo Porte**, transforma la cristalera en una superficie opaca. Mediante la técnica de la serigrafía, repite un motivo formado por doce fragmentos, introduciendo variaciones en cada módulo del ventanal. Para resolver la parte técnica de la propuesta, contará con la colaboración de Sara Ezquerro, del estudio de estampación Velo de Oviedo. Juntas, pintando en directo, abrirán el ciclo 9 SOLES.

Amaya Suberviolak geruzen bidez eraikitzen ditu koadroak, eta pinturan islatzen du multipantailaren bidez errealitatearekin erlazionatzeko dugun modua. Horrela, keinuak jartzen ditu bata bestearen gainean, harik eta obrak abstrakzioaren eremuan autonomia propioa lortu arte. Behatokiko bere esku-hartzeari **Módulo Porte** deitu dio, eta hartan beiratea gainazal opaku bihurtzen du. Serigrafiaren teknika erabilita, hamabi zatiz osatutako motibo bat errepikatzen du, leiho handiko modulu bakoitzean bariazioak sartuz. Proposamenaren alderdi teknikoa gauzatzeko, Sara Ezquerroren lankidetza izanen du, zeina Oviedoko Velo estanpazio estudiokoa baita. Elkarrekin zuzenean pintatuz, 9 EGUZKI zikloari hasiera emanen diote.



Elba Martínez

26 JUL / UZT. / 20.00

POESÍA & INSTALACIÓN / POESIA & INSTALAZIOA

El texto es el elemento que une las diferentes partes de la intervención de Elba Martínez, titulada **El Dorado**. La artista expondrá en el Mirador algunas de sus piezas de textil en las que aparecen escritas frases que resuenan como fragmentos de una canción pegadiza. También recitará poemas del libro que está ultimando, **El pajarito que encontró su miga**. Son poemas en los que emergen motivos ya presentes en su obra plástica: pájaros, rostros, gestos, palabras de amor y desamor. Ahí va un extracto.

¿De qué color son los ojos del cisne cuando duerme?
cuando el mar asciende y te mira con sus ojos
acuáticos

Elba Martínezek **El Dorado** izeneko esku-hartzea egin du, eta testua erabiltzen du obraren zatiak elkartzeko. Behatokian, bere oihal-piezetako batzuk erakutsiko ditu. Pieza horietako esaldiak abesti gogoraerrazen zatiak bezala entzuten dira. Poema batzuk ere errezipiatuko ditu, bere **El pajarito que encontró su miga** liburutik hartuak, oraintxe ari baita obra hori bukatzen. Poema horietan, bere obra plastikoko motibo berak agertzen dira: txoriak, aurpegiak, keinuak, amodiozko eta desamodiozko hitzak. Hor doa laburpen bat.

Zer koloretakoak dira beltzargaren begiak lo
dagoenean?
itsasoak gora egiten duenean eta bere uretako begiekin
begiratzen dizunean



Akira Yoshida

02 AGO / ABU. / 20.00

DANZA CONTEMPORÁNEA / DANTZA GARAİKIDEA

Desde que se marchó de Navarra para estudiar en la Academia Experimental de Danza de Salzburgo, Akira Yoshida no ha parado de viajar. De hecho, ha intervenido en tantos festivales que en ciertos momentos ha llegado a pensar que su maleta es su mejor compañera. Precisamente, en el solo que presenta en el Mirador, titulado **Burial of the Dark**, Yoshida establecerá un diálogo con una maleta (lo que no es una metáfora). Así, delante nosotras emprenderá un viaje que será una búsqueda, un viaje que será un baile. Quizás la vida sea un viaje, o un baile. En todo caso, en este ir y venir nuestro, se da la curiosa circunstancia de que algunos objetos nos acompañan y nos arropan.

Akira Yoshida Salzburgoko Dantza Akademia Esperimentalera joan zen Nafarroatik, eta, orduz geroztik, harat eta honat dabil bidaiatzen. Hainbeste jaialditan hartu du parte, ezen batzuetan pentsatu izan baitu maleta dela bere adiskiderik minena. Behatokian, **Burial of the Dark** bakarkako saioa aurkeztuko du, eta maleta batekin egingen du solas (ez bakarrik zentzu metaforikoan). Horrela, bidaia bati ekinen dio gure aurrean, eta bidaia hori bilaketa bat izanen da, dantza bat. Agian bizitza horixe da, bidaia bat, edo dantza bat. Gure joan-etorri hauetan, behintzat, kurioa da nola objektu batzuek lagun egiten diguten eta babesten gaituzten.



Yolanda Campos Bergua + Pilar Rius & Elisa Urrestarazu

09 AGO / ABU. / 20.00


MÚSICA CONTEMPORÁNEA / MUSIKA GARAIKIDEA

La pieza **Silences** compuesta por Yolanda Campos Bergua nace de sus conversaciones con la poetisa Consuelo Sánchez Naranjo. El elemento común de la música y de los textos que conforman esta performance sonora es la fascinación por el cosmos. Así, la obra nos lleva por un sugerente viaje espacial en el que se evocan tres fenómenos astrofísicos relevantes: el Big bang, las colisiones de agujeros negros y la gravitación. La guitarrista Pilar Rius y la saxofonista Elisa Urrestarazu completarán la pieza, aportando matices e intensidad con su interpretación.

El programa se complementa con la obra de la compositora Inés Badalo López, **Anthophila**.

Yolanda Campos Berguak **Silences** pieza sortu zuen, Consuelo Sánchez Naranjo poetarekin izandako solasaldietatik abiatuta. Soinuzko performance hau eratzen duten musikak eta testuek badute elementu komun bat: kosmosarekiko lilura, hain zuzen. Horrela, bada, obra honek espazioko bidaia iradokitzaile batean eramaten gaitu hiru fenomeno astrofisiko nabarmen ikustera: Big bang-a, zulo beltzen arteko kolpeak eta grabitazioa. Pilar Rius gitarra-jotzaileak eta Elisa Urrestarazu saxofoi-jotzaileak osatuko dute pieza, beren interpretazioaz ñabardurak eta intentsitatea gehituz.

Inés Badalo López konpositorearen **Anthophila** obrarekin osatuko da programa.



Cia La Trapecionista / Konpainia

16 AGO / ABU. / 20.00

DANZA AÉREA / AIREKO DANTZA

Un saco de arena, un trapecio y un violoncello constituyen la colección de objetos con los que Maitane Azpiroz ha creado la coreografía de **Artixipiélago**, una obra en la que la danza se eleva por los aires al son del violoncello. En el baile que interpreta Teresa Magallón, a veces la arena se guarda en un pesado saco que debe arrastrar, pero en otras ocasiones esa arena vuelve a ser un material ligero que se lleva el viento. Su baile será acompañado por el violoncelista Iván Casado, que entrará en el movimiento añadiendo voz y ritmo. En el suelo, la arena dejará a la vista las huellas de sus pasos, conformando un relato de sus estados de ánimo.

Maitane Azpirozek zenbait objektu erabili ditu -harea zaku bat, trapezio bat eta biolontxelo bat- **Artixipiélago** koreografia sortzeko. Obra horretan, dantza airean altxatzen da biolontxelo baten musikarekin. Teresa Magallónek interpretatzen duen dantza horretan, harea, batzuetan, zaku astun batean gordeta dago eta dantzariak arrastaka eraman behar du; beste batzuetan, aldiz, harea oso material arina da eta haizeak daroa. Iván Casado biolontxelo-jotzaileak dantzariari lagun egingen dio, eta mugimenduan sartuko da ahotsa eta erritmoa erantsiz. Lurrean, hareak bere urratsen aztarnak utziko ditu, bere gogo-aldarten narrazioa eginez.



Álvaro Gil

23 AGO / ABU. / 20.00

ACCIÓN ESCULTÓRICA / ESKULTURA-EKINTZA

El escultor Álvaro Gil se ha propuesto sacar a la luz una parte oculta de la creación artística: el devenir de todas esas cajas que contienen obras de arte que, una vez finalizado su recorrido expositivo, se acumulan en el taller del artista. Esas obras dormitan y están a la espera, y Gil se resiste a tirarlas porque le une con ellas un lazo amoroso: albergan muchas horas de dedicación y de aprendizaje, han contenido un número importante de hallazgos. Por otra parte, cabe la posibilidad de que, al rescatarlas del olvido para revisarlas de nuevo, aparezca un nuevo ensamblaje. Es lo que se propone en el Mirador con su acción titulada **Otro desembalaje**: “jugar con platos rotos”.

Álvaro Gil eskultoreak arte-sorkuntzaren ezkutuko alderdi bat agertu nahi izan du: barruan artelanak dituzten kutxen gorabeherak; izan ere, obren erakusketa-ibilbidea amaitu ondoren, kutxak artistaren tailerrean metatzen dira. Obrak erdi lo daude, zain, eta Gilek ez ditu bota nahi, haiekin amodiozko lotura duelako: ahaleginez eta ikasketez betetako ordu asko daude haietan, bai eta aurkikuntza ugari ere. Bestalde, litekeena da ahanzturatik askatu eta berrikustean beste mihiztadura bat agertzea. Behatokian **Otro desembalaje** ekintza egingen du, eta hartan, hain zuzen ere, “plater hautsiekin jolastea” proposatuko.



Amaia Molinet + Txaranga Urretabizkaia

30 AGO / ABU. / 20.00

PERFORMANCE SONORA / SOINUZKO PERFORMANCEA

En el Mirador, Amaia Molinet fija la mirada en los montes cercanos para traer al espacio imágenes de montañas. Su intervención se titula **Mendikate Mendekatu**, porque en euskera estas palabras comparten el mismo campo semántico. Cordillera y vengar. Altos desde los que se controlan las llanuras, o montañas que han sido lugares de resistencia. Con el objetivo de ponerle una banda sonora a este paisaje de conquista, Amaia ha invitado a sus compañeras de la Txaranga Urretabizkaia. La charanga, que se autoproclama hiperventilada (saxos, trombones, trompetas, clarinete, trompa) y destaca por su carácter disruptivo, presentará alguna que otra marcha y una coreografía creadas para la ocasión. Bienvenidas a la fiesta final.

Behatokian, Amaia Molinetek hurbileko mendiei erreparatuko die, mendien irudiak ekartzeko. **Mendikate Mendekatu** da haren esku-hartzearen izenburua, bi hitz horiek eremu semantiko berean labaintzen direlako. Mendikatea eta mendekatzea. Batetik, goialdeetatik lautadak kontrolatzen dira; bestetik, mendiak erresistitzeko tokiak dira. Konkistako paisaia honi soinu-banda jartzeko, Amaiak Urretabizkaia txarangako lagunak gonbidatu ditu. Txarangak hiperairezatua dagoela esaten du bere buruaz (saxoak, tronboiak, tronpetak, klarinetea eta tronpa baititu). Musika-talde hori disruptiboa da. Ekitaldi honetarako sortu dituen martxa bat edo beste eta koreografia bat aurkeztuko ditu. Ongi etorri azken festara!



COMISARIADO
KOMISARIOA

Alexandra Baurès

COORDINACIÓN TÉCNICA
KOORDINAZIO TEKNIKOA

Ana García

SONIDO
SOINU

Iosu Marti

VIDEOS
BIDEO


The Visible Man

BAR

**By Carlos
Rodríguez**

IMAGEN
DISEINU

Ken



Museo de Navarra
Nafarroako Museoa
Mirador / Begiratokia

ENTRADA
CON CONSUMICIÓN
SARRERA
KONTSUMIZIOAREKIN

10 €

AFORO
EDUKIERA

70

APERTURA DEL
MIRADOR Y BAR
BEGIRATOKIA ETA
TABERNA IREKITZEA

19.00 » 21.30

ACCIÓN ARTÍSTICA
EKINTZA ARTISTIKOA

20.00

DURACIÓN APROX.
IRAUPENA, GUTXI
GORABEHERA

30 - 45'



VENTA DE ENTRADAS
EN LA TAQUILLA DEL MUSEO.
SÓLO EN METÁLICO.

SARREREN SALMENTA, MUSEOKO
LEIHATILAN.
ESKUDIRUTAN BAINO EZIN
DIRA ORDAINDU.